

# Noqua!!!

H A M A B O S K A R A

201eko abenduaren 21a VI.urtea

Usurbil, 126. zenbakia



Kostaldekoko trenak  
Usurbila iritsi zenekoa

# USURBILGO OFIZIOAK ZURE

## ESKURA DITUZTE

I geltseritza

I turgintza

A roztegiak

URDANTZI

**IÑAKI  
LATAILLADE**

Iturgintza gas eta bero-  
gintza

INSTALAKUN -

Mobila: 609 888021

**BERE MARTUA**

Egurrezko  
aluminio guler-  
ko

Agintza Telf: 9 3 37 1 71

**ERRAZKIN  
IGELTSERITZA**

Kale Nagusia, 1

☎ 943 37 26 79 ☎ 36 51 25

Santuenea ☎ 629 42 05 65

**PORTULARRUME**

BAINUKO ALTZARIAK



Telf; 943 36 46 37

**JOSE RAMON  
IBARGOEN**

Neurriko altzariak eta sukaldeak  
Errotaberrí kalea, 3 Osinalde

☎ 943 36 14 48 -

Faxa: 943 36 69 45

**JOSE AIZPURUA UNANUE**

Igeltseritza eta pintura

Teilatuen berritzea



Fatxaden konponketa

Pintore kalea, 1 - 3.A  
LASARTE-ORIA  
Tel.: 36 17 83

Muna Lurra, 20 - 1.B  
USURBIL  
Tel.: 943 36 37 67

**JOSE MARI  
KUTZA**

Ugarte, 4 Kalezar

Telf eta faxa: 943 37 12

**JOSUE ARANZATZIS**

Igeltseritza eta pintura

Juan Jose enea, 6

Kalezar

% 943 36 05 50- 606 37 21 05

**JOSEBA  
ARANGU**

☎ 943 83 00 72

I skapilla

**JOSE ANTO-  
NIO**

Galtzaragaina 2-2B

Telf 943 37 34 70

P inturak

E lektrizitatea

**RAMON  
BARCENILLA**

• Plikor pintura eta gotele lanak

• Paperezatze-lanak

• Pintura-lanak orohar

Mobila: 629 46 09 66

**MIKEL IZAGI**

Goiz-Argi etxea, 37

Kalezar

Telf: 943 36 50 95

**EUGENIO  
NORIEGA**

Erdiko kalea, 12

Atxegalde

Telf: 943 36 56 65- 616 92 60 25

*Pinturas  
lon*

943 83 09 37- 670 39 75 04

**ARGILAN**

Instalakuntza elektrikoak

Kontseju zaharra, 13

Telf: 943 370274

URTE BERRI ON!

37 29 37 - 36 59 26

## Txerrimunik ordainetan



Zorionak **Jexu!** Abenduaren 18an zure urtebetetze eguna izan zenez, muxu handi bat eta urte askotarako etxekoan partez.



Zu zoriontzeko urte zahar eguna itxaron beharra izatea ere... Zorionak **Maider,** hori bai, gonbidapenaren zain egongo gara.



Zorionak **Joakin!** Abenduaren 12an 50 urte egin zenituen. Argazkian alde ederrean zaude, ezta? Muxu handi bat eta urte askotarako etxekoan partez.



Zorionak Xomorro!!

Hona hemen edonor zoriontzeko tartea. Bere urtebetetze eguna delako, ezkondu egin direlako edota tituluren bat lortu duelako dohainik, bazkide direnek nahiz ez direnek tarte hau erabili dezakete. Ekarrri jarri beharreko testua eta argazkia.

Hurrengo alea: urtarrilak 12  
Ekartzeko azken eguna: urtarrilak 4

## Akatsak zuzenduz

Akats baten ondorioz Zer irizten? sailean datorren idatzia Joxe Ramon Furundarenaren izenean agertzen da, baina idatzi hori UEMA, OEE, LAB eta ELA erakundeek adostutakoa da. Joxe Ramon OEEren ordezkaria izan da beste erakundeekin egindako bilereetan. Bestalde, OEE hizkien esanahia ere oker dago. Zuzena hauxe da: Osasungoa Euskalduntzeko Erakundea.

Urtarrila						
Astel.	Asteaz.	Asteaz.	Osteg.	Ostira.	Larun.	Igand.
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

## Eusko Tren-en neguko tren ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
05.47	06.03	06.20	06.08	06.24	06.39
06.17	06.33	06.50	06.38	06.54	07.09
06.47	07.03	07.20	07.08	07.24	07.39
07.17	07.33	07.50	07.38	07.54	08.09
07.47	08.03	08.20	08.08	08.24	08.39
08.17	08.33	08.50	08.38	08.54	09.09
08.47	09.03	09.20	09.08	09.24	09.39
09.47	10.03	10.20	10.08	10.24	10.39
10.17	10.33	10.50	11.08	11.24	11.39
10.47	11.03	11.20	12.08	12.24	12.39
11.47	12.03	12.20	12.38	12.54	13.09
12.17	12.33	12.50	13.08	13.24	13.39
12.47	13.03	13.20	13.38	13.54	14.09
13.17	13.33	13.50	14.08	14.24	14.39
13.47	14.03	14.20	14.38	14.54	15.09
14.17	14.33	14.50	15.08	15.24	15.39
14.47	15.03	15.20	15.38	15.54	16.09
15.17	15.33	15.50	16.08	16.24	16.39
15.47	16.03	16.20	16.38	16.54	17.09
16.17	16.33	16.50	17.08	17.24	17.39
16.47	17.03	17.20	17.38	17.54	18.09
17.17	17.33	17.50	18.08	18.24	18.39
17.47	18.03	18.20	18.38	18.54	19.09
18.17	18.33	18.50	19.08	19.24	19.39
18.47	19.03	19.20	19.38	19.54	20.09
19.17	19.33	19.50	20.08	20.24	20.39
19.47	20.03	20.20	20.38	20.54	21.09
20.17	20.33	20.50	21.08	21.24	21.39
20.47	21.03	21.20	22.08	22.24	22.39
21.47	22.03	22.20	22.38	22.54	21.09

**Kexaren bat baduzu, kritikaren bat eskuartearen badabilkizu edo eta herriko zerbaitetaz hitz egin nahi baduzu guk ikamikan toki bat egingo dizugu.**

**Eskutitzak izengoiti batekin sinatu daitezke, baina Noaua'n argitara emateko guk zuen izen-abizenak jakitea ezinbestekoa da. Testuak 2000 karaktere baino gutxiago izan beharko ditu.**

**Eskutitz horiek Noaua! Kultur Elkartearen egoitzara eramanez edo postaz bidali besterik ez duzue egin behar.**

## Eusko Tren-en neguko autobus ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
07.30	07.55	08.15	06.45	07.05	07.30
07.40	08.05	08.25	07.15	07.35	08.00
08.00	08.25	08.35**	07.45	08.05	08.30
08.30	08.55	09.15	07.45	08.05	08.30
08.40	09.05	09.25	08.15	08.35	09.00
09.00	09.30	09.40*	08.45	09.05	09.30
09.30	09.55	10.15	08.45	09.05	09.30
09.40	10.05	10.25	09.20**	09.30	10.00
10.30	10.55	11.15	09.45	10.05	10.30
10.40	11.05	11.25	09.45	10.05	10.30
11.30	11.55	12.15	10.20*	10.30	11.00
11.40	12.05	12.25	10.45	11.05	11.30
12.00	12.25	12.35**	10.45	11.05	11.30
12.30	12.55	13.15	11.45	12.05	12.30
12.40	13.05	13.25	11.45	12.05	12.30
13.00	13.30	13.40*	12.45	13.05	13.30
13.30	13.55	14.15	12.45	13.05	13.30
13.40	14.05	14.25	13.20**	13.30	13.55
14.00	14.30	14.40**	13.45	14.05	14.30
14.30	14.55	15.15	13.45	14.05	14.30
14.40	15.05	15.25	14.20*	14.30	14.55
15.00	15.25	15.40*	14.45	15.05	15.30
15.30	15.55	16.15	14.45	15.05	15.30
15.40	16.05	16.25	15.20**	15.30	15.55
16.30	16.55	17.15	15.45	16.05	16.30
16.40	17.05	17.25	15.45	16.05	16.30
17.30	17.55	18.15	16.20*	16.30	16.55
17.40	18.05	18.25	16.45	17.05	16.55
18.00	18.30	18.40*	16.45	17.05	18.30
18.30	18.55	19.15	17.45	18.05	18.30
18.40	19.05	19.25	17.45	18.05	18.30
19.00	19.25	19.35**	18.45	19.05	19.30
19.30	19.55	20.15	18.45	19.05	19.30
19.40	20.05	20.25	19.20*	19.30	19.55
20.00	20.30	20.40*	19.45	20.05	20.30
20.30	20.55	21.15	19.45	20.05	20.30
21.00	21.25	21.45	20.45	21.05	21.30
21.30	21.55	22.15	21.15	21.25	21.55
22.15	22.45	23.05	21.45	22.05	22.30
22.30	22.55	23.15	23.15	23.25	23.35
00.00	00.25	00.45	00.15	00.25	00.35
01.00	01.25	02.45	01.15	01.25	01.35
02.00	02.25	02.45	02.15	02.25	02.35
03.00	03.25	03.45	04.15	04.25	04.35
04.00	04.25	04.45	05.15	05.25	05.35
05.00	05.25	05.45			
06.00	06.25	06.45			

\*Oriotik \*\*Aiatik  
\*Oriaraino \*\*Aiaraino  
■ Asteburutan ■ Asteburutan

**Argitaratzailea**

Noaua! Kultur Elkarte  
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea  
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)  
Tlf.: 943 36 03 21 Fax.: 943 37 25 02  
E-mail: noaua.k.e@euskalnet.net  
Web orria:  
<http://www.jalgi.com/topagunea/noaua>

**Kazetarien koordinatzailea**

Josu Aranberri

**Kazetariak**

Josu Aranberri, Amagoia Mujika,  
Olatz Lasagabaster eta Agurtzane  
Solaberrieta

**Publizitatea**

Agurtzane Solaberrieta

**Zuzentzailea**

Eneko Harreguy

**Kolaboratzaileak**

Ines Kamino, Iñaki Labaka, Iratxe  
Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier  
Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal,  
Alazne Begiristain, Zaloe Arnaiz, Agur-  
tzane Solaberrieta, Joseba Pellejero,  
Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel  
Bengoetxea, Agustin Esnaola, Olatz  
Goenaga, Urko Manterola, Eneko  
Harreguy, Karmele Urdanpilleta, Jose-  
ba Zubeldia, Imanol Goenaga, An-  
doni Udabe, Eukene Kamino, Isaak  
Muñoz, Olatz De Miguel, Jone Eiz-  
mendi, Jokin Zubiaur, Maria Jesus  
Urbieta, Iñaki Agirresarobe eta Mari  
Angeles Arruti.

**Bazkidetza**

Aitziber Aranberri

**Erredakzio Kontseilua:**

Josu Aranberri, Amagoia Mujika,  
Garikoitz Udabe, Olatz Lasagabaster  
eta Agurtzane Solaberrieta.

**Informatika**

Pili Lizaso eta Oskar Angulo

**Banaketa**

Miren Azkonobietta, Txelo Vidal eta  
Kerman Errekondo

**Elektrikaria**

Iñaki Salsamendi

**Tirada:** 2.600 ale

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818

**Inprimategia:** Antza

Noaua! hamaboskariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

**Noaua! Kultur Elkarte**  
**jendaurreko**  
**ordutegia:**  
**10.00-14.00 / 16.00-20.00**  
**astegunetan**

## Leihaketa oposaketa jirabiran

**N**ahiz eta Noaua!n argita-  
ratu EAJ-PNVk aurkezturi-  
ko errekursoari kasorik ez  
zitzaiola egin esan, hau ez da  
zehazki horrela izan. Errekurtso-  
an epaimahaiaren anulazioa  
eskatu bait genuen eta eskaera  
hau onartua izan baitzen. Hau  
horrela, urriaren 30eko plenoan  
epaimahai berria izendatu eta  
aurreko epaimahaiak eginiko  
frogak bertan behera uztea era-  
baki zen, lehen froga ezik, logi-  
ka guztiaren aurka: epaimahai  
bat anulatzen bada bere ekin-  
tza guztiak ere bertan behar utzi  
behar baitira. Ez dugu inondik  
inora ulertzen balio ez duen  
epaimahai batek emandako  
epaiak baliogarritzat hartzea.

Gure taldeak, halako eraba-  
kiaren aurka, errekurso berria  
aurkeztu zuen. Bertan prosezua  
guztia anulatzea eskatzen ge-  
nuen, epaimahaiak plaza kon-  
bokatzerakoan izendatu behar  
baitira eta epaimahaikide guz-  
tiek epaitzen den lanpostuak  
beharrezko duen titulazio maila  
berdina edo haundiagoa izan  
behar baitute (kasu honetan,  
unibertsitateko hiru ikasturte gu-  
txienez). Azken errekurso horretan  
plenoak onartutako lehen  
frogaren emaitzak bertan behe-  
ra uztea ere eskatzen genuen  
(oraindik ez dugu erantzunik  
jaso udalaren aldetik).

Azaroaren 27ko plenoan,  
urriaren 30eko plenoaren akta  
onartu zen aho batez. Akta  
horretan, gai honi buruzko boz-  
ketan zinegotzi ez den pertsona  
batek aldeko botoa eman  
zuela agertzen da. Pertsona  
honek bozketan parte hartu iza-  
nak bertan behera uzten du  
puntu honetaz urriaren 30eko

plenoan onartutako erabakia.  
Honen ondoren, guk, errekurtsu-  
aren anpliazio bat aurkeztu  
genuen. Konbokatoria guztia  
eta aukeraketa prosezua guztia  
anulatu behar zela insistitu ge-  
nuen. Boterean dagoen alder-  
diak akats bat dela esango du,  
baina egia da zinegotzi ez den  
pertsona batek gai honen ezta-  
baidan parte hartu zuela.

EAJ-PNV taldean, udalean  
euskara sustatzeko, bultzatzeko  
eta hizkuntza normalizazioarako  
funtzioak betetzeko gai den fun-  
tzionari bat baduela diogu.  
Beraz, ez dugu ikusten funtzio  
hauek betetzeko beste funtzio-  
nari bat kontratatze beharra.  
Bestalde, gure taldeak, kultur  
dinamizatzaile eta gaztediaz  
arduratuko den langile baten  
beharra ikusten du (herriko bes-  
te kultur taldeek ere, egindako  
aholku batzarretan argi azaldu  
izan dute behar hau). Gabezi  
hau konpontzeko, laboral baten  
kontratazioa, urte bete edo  
birako, nahikoa izango da langi-  
le honen lana probetxugarria  
den edo ez ikusteko eta funtzio-  
nari bihurtu ahal izateko.

Azkenik, gure idatziak gaztele-  
raz azaldu izanak ez du hizkun-  
tza bultzatzeko alde ez gaude-  
nik esan nahi. Guztiz alderantziz  
baizik. Onartzen dugu lege txos-  
tenak euskaraz aurkezteko  
dugun zailtasuna, eta ulertzen  
dugu lege txostenak euskaraz  
aurkeztu ahal izateko gure hiz-  
kuntza ezagutza landu eta  
haunditu beharko dugula.  
Udala berak ere gaztelera era-  
biltzen du lege "disposizioak"  
agertzerakoan.

**Usurbilgo EAJ-PNV**

Usurbilgo Udala

Gipuzkoako  
Foru Aldundiak  
diruz lagundutako  
aldizkariaKultura sailak diruz  
lagundutako  
aldizkaria

Euskal presoak

Euskal Herra!

## Itxuretan geratu baino, ekin diezaiozun lanari

**A**rrazoi duzue: Ikastolak, AEK, EHE eta hainbat ekimen ez dira legepean (solilik) egin, borondateak eta lanak bultzatuta baizik. Hain zuzen ere, udalaren barne funtzionamendua ahalik eta euskaldunena izan dadin, legearen babesetik kanpo zer dagoen jakin behar da borondaterik ez duena ez baitago derrigorzerik. Horregatik lege-ixostena eskatzea nahikoa arrunta iruditzen zaigu, are arruntagoa, besteak beste, langileen ordezkarien irizpideak hasieratik kontuan hartu ez izanagatik, konfliktua sortzeko arriskua zegoenean. Konbentzitzea behartzea baino eragin-korrago ez ote?

Azterketa gaiet dagokionez, kultura-euskara teknikaria izateko Konstituzio espainiarrari buruzko galderak egiteak harritu zaituzte. Zergatik da harrigarria kasu honetan eta ez beste lanpostuetarako? Ez al dira bada administratzaile edo konbentzitaile lanpostuetarako aukerak direnak ere euskal herritar? Administrazio espainiarpe-

an sortutako, mantendutako eta ordaindutako lanpostuak dira udalekoak. Ez ahaztu Udalak arautzen duen legeria Espainiak ezarritakoa dela eta horri "izkin egitea" ahalbidetzea denon esku dago.

Udalbiltza eta UEMA barnean dagoen herria da gurea, Ejertzi-toari intsumitu deklaraturakoa eta alkatea urtebeterako ezgaitua duena, Bermeokoa ez bezala! (zergatik ote?). Baina aldarrikapen soilak ez du esan nahi Usurbila iada herri burujabea eta independentea denik. Egunero borrokatu eta eraiki behar diren helmugak dira horiek guztiak.

Intsumisioa, desobedientzia eta antzeko borrokak askozaz eraginkorragoak dira era kolektiboan egiten direnean. Horregatik abertzale sutsuena nor den apustu hutsaletan denbora galtzera baino, Udalbiltzak dei egiten duenean euskal karneta masiboki eskatzera gonbidatzen zaituztegu guztioi; alkatea berriro epaituko balute, beroni

babes ematera joatea Epaitegi-  
ra (batez ere intsumituok); Konstituzioaren aurka bazaudete, egunero borrokatzera gure herriari dagokion burujabetza konkistatzeko; udalean usurbildarron hobe beharrerako lanean dabilzanean akatsak eta hutsuneak kritikatu behar direnean, era konstruktiboan egitera eta, batez ere, zuen inguruko interes partikularrak baztertuz, taberna zulo batetik ikusten dena baino ikuspegi zabalagoa izatera.

Horrela fruitu sendoak eman-  
go dituen arbola izango dugu eta geroak euskara hitz egingo du, euskal karneta, Konstituzio propioa eta bertako udal legerian araututako Administrazio publikoa izango du.

### Beste hamabost bat herritar

Oharra: idatzi hau leku falta zela eta ezin izan zen aurreko alean argitaratu. Bestalde, 15 herritar horiek zeintzuk diren jakin nahi izanez gero nahikoa da Noaua!ra deitzea.

## Dantza taldeak zenbait gauza argitu nahi ditu

**U**surbildarro, jakinaren gainean egon zaitezten, zenbait gauza argitu nahi dizkizuegu, hainbat komentario iritsi baitira azken aldian gure belarrietara eta ez da guretzat oso atsegina izan.

Momentu honetan "Usurbilgo dantza taldeak" sei kide ditu eta seiron artean antolatzen dugu urteko egitaraua: taldeak nola osatu, talde bakoitzerako zein irakasle den egokiena erabaki, zer dantza irakatsiko diren aukeratu eta beste hainbat ekintza.

Argi eta garbi utzi nahi duguna zera da: dantza taldean lanean dihardugunok, ez dugula ezertxo ere kobratzen dantzak irakasteagatik, gure borondatez ari gara lanean.



Gurasook haurren kuota ordaintzen duzuenean diru hori ez da dantzako irakasleen soldata ordaintzeko izaten, beste zenbait ekintzetarako baizik: materiala ordaintzeko, urtero egiten den eskurtsioko gastuak ordaintzeko, arropa txukuntzeko eta beste zenbait gauza egiteko izaten da. Hau guztia esanda

zenbait gauza argi geldituko zitzaizkizuelakoan gaude, eta hala ez bada taldera hurbildu, eta ahal dugun neurrian dituzuen kezkek, zalantzak eta galderak argitzen saiatuko gara.

Azkenik, bi ohar ditugu: alde batetik norbait guri laguntzeko prest balego gurekin kontaktuan jar dadila. Bestalde, azken hiru urteetan arazo txiki bat izan dugu: eskusoinu talde bat falta zaigu eta eskusoinua jotzeko prest dagoenik bada gurekin harremanetan jartzea eskertuko genioke.

Horrenbestez, mila esker entzuteagatik eta gauzak argi gelditu direlakoan, beste bat arte.

**Usurbilgo Dantza Taldea**

# SANTUENEA

Alfonso Vidal



## Bizitasun eskean

**2**001. urtea bukatzean dago. Triste egoteko arrazoia izan daiteke, urteak aurrera baitoaz, baina 2002. urtearen etorrera gerturatzearekin batera poztasunak ere tartetxo bat hartzen du gu guztion arte-

an. Denok ezagutzen dugun esaldiak dioen moduan, urte berria bizitza berria.

Egia esan, Santuenea dagoneko hasi da bere bizitza berriarekin. Alde batetik, jende berria, orain arte ezagutzen ez genituenak etortzen ari dira gure auzora bizitzera, baina beste aldetik beste leku batera bizitzera joaten diren auzokoak ere asko dira.

Azken finean, aldaketa ugari izan dira azken

urte hauetan Santuenean. Dendak ateak ixten ari dira, tabernak salgai daude... gure auzoa pixkanaka-pixkanaka hiltzen ari dela dirudi.

Hori gertatuko ez denaren itzaropenarekin ekin beharko diogu urte berriari eta olentzero menditik laister jaitsiko denez hori horrela izan ez dadin ahal duen guztia egiteko eskatuko diot. Aurten ere, aurreko urteetan bezalaxe, Santuenean kalejiran ibiliko delakoan nago. Badakizue, abenduaren 24an, gure auzoarentzat bizitasun gehiago eskatu beharko diogu guztiok batera.

Besterik gabe, zorionak eta urte berri on denoi.



# URDAIAGA

Alazne Begiristain



## Urte berriaren atarian

**K**onturatzeke, urte berriaren katarira iritsi gara. 2001eko nire azken kronika idaztea tokatu zait eta zer esango dizuet bada nik?. Negu giroa nabari da tontor honetan eta oraintxe bertan ez dago mugimendu handirik. Beno, abisu bat eman nahi nizueke San Estebango bidean ibiltzen zaretenoi badaezpada ere.

Andatza aldetik enborrak ekarri eta ekarri ari zaizkigu kamioiak. Kurba parean uzten dituzte enbor hauek eta, enborrekin batera, lokatza ere ekartzen digute nonbaitetik. Bidea nahiko zikina dago eta euria egiten badu sortzen den lokatza ere nahiko arriskutsua da,

Lurra irristakor jartzen da, kontuz beraz!

Datozen egunei begira badut zer esanik. Lehenik eta behin abenduaren 24ean Andatzatik jaitsiko zaigun Olentzero ezin utzi aitatatu gabe. Andatzatik behera, gure auzotik barrena jaitsiko da herriko kaskora bertako etxeak bisitatzeko asmotan.

Abenduaren 26an, berriz, San Esteban Txiki eguna izango dugu. Aurreko alean Eiderrek egin zuen bezala, hona inguratzeke gonbidapena luzatu nahi nizueke nik ere.

Azkenik, urtarrilaren 5ean ere hemen goialdean festa txikia izango dugula esan behar dut. Gure auzoko ermitatik abiatuko dira hiru Erregeak Usurbilgo etxe guztietara.

Eta besterik gabe, eguberri egun zoriontsuak igaro ditza zuela opa dizuet denoi eta urte berri on!



# KALEZAR

Ainara Uribe



## Aldez aurretik, Eguberri on!

**B**eno lehenik eta behin **EGUBERRI ON** guztioi, gabonak pasa arte ez baikara elkar agurtu, ikusi, edo irakurriko. Kronika hau idazterakoan gaiak aukeratzen ibili naiz neta azkenean, eta gainean ditugunez Eguberriaz hitz egitea bururatu zait. Horregatik hasi naiz gabonen kontu horrekin.

Usurbilen gabonak direla ez da antzematen. Lehen piñu ear bat jartzen zuten baina orain errotondan dozena erdi bonbila bakarrik, frontoian musika pixka bat aurrentzat eta...besterik ez.

Kalezarren, berriz, ez da ezer jartzen, badakigu egun hauek kontsumoarekin zerikusi zuzena

dutela, baina horri horrenbesteko boikota egitea ere?

Eskerrak plaza ondoan Mari-kruzek argitxoak jartzen dituen balkoian, eskerrak Saizar aldean Sinesek ere kolorezko bonbilak piztu dituen zuhaitz gainean aurten, eskerrak sagardotegikoek ere gabon dizdirak dituzten, eta baita beste askok ere. Bestela auzoko txiki-kienek ez lukete inolako ilusiorik izango. Besteei ere gauza hauek ez digute inolako kalterik egiten, eta Eguberriek ekar-

tzen dizkiguten egun triste hauek pixkat kolorez alaitzeko balio dute.

Nire aldetik besterik ez. Ondo pasa gabonak eta 2002. urtean hanka onez sartu.



# ATXEGALDE

Maria Jesus Urbieta



## Hotzari aurre eginez

**G**ure txokoak jelatu dira bolada honetan eta erropak atera ditugu hotzaz ondo babesteko asmotan. Gabonak gain-gainean baititugu eta berarekin negua. Bazter guztietan ikus daitezke olentze-

roak, gabon garaiko irudi eder-rrak, argiak eta izar dotoreak, zuhaitz distiratsuak... alaitasuna somatzen da kale eta eskapartateetan.

Laster hasiko gara jaiak ospatzen gaztain erre, turroi edo fruitu bereziekin eta gure azken pezetak gastatzen, urte berriarekin batera txanpon berria ere etorriko baitzaigu eta euroarekin ibili beharko dugu borrokan.

Halaxe hasi gara jaiak prestatzen. Zenbat gauza eder egin daitezkeen umorea, gogoia eta ilusioa izanez gero...

Eta etortzekoak diren festetatik pasatakoetara. Santa Luzia eguna ere pasa berria dugu, emakume talde ederrak bildu ziren urtero bezala jatetxe ugarritan elkarrekin afaltzeko, baita Atxega Jauregian ere.

Lagun mordoak bildu ginen bertan, bete-bete egin arte eta umore ederrez pasatu genuen afalostea ere, ederki dantzatzuz berandura arte, egunari merezi zuena emanaz eta tradizioari eutsiaz.

Gaurko adioa berezi samarra da, datorren urtera arte ez bainaz bueltatuko txoko honetara, beraz, tartea aprobetxatuko dut guztioi jai ondo pasatzeko esanaz eta urte berri on ona opatuz. Hurrengo urtera arte.



## TXOKOALDE

Olatz Goenaga



### 1967 hartako Santa Luzia eguna

**A**le hau ateratzen dene-  
Arako Santa Luzia  
eguna pasata egongo da,  
baina bat baino gehiago  
gogoratuko da 1967. urteko  
abenduaren 13an Lasao  
etxe parean "La Costa  
Vasca" autobusak izan zuen  
istripuaz.

Neguko egun hotz horieta-  
ko bat zen eta goizeko  
7:30ak inguruan Hernaniko  
eskolara eta Mitxeliner  
lanera zihoazen jendez  
betea zegoen autobusa.  
Bertan Txokoaldeko batzuk  
ere baziren.

Badirudi autobusak kurpile-  
tan arazoren bat zuela eta  
horren ondorioz bazterra jo  
eta hesia txikitu ondoren  
ibaira erori zela. Ibaian kurpi-  
len gainean geratu zen au-  
tobusa. Ur asko eta indarre-  
an zetorren eta leihoko kris-  
taletaraino iristen zen. Bat  
baino gehiago zilipurdika  
ibili ondoren leihotik irten eta  
autobus gainera igo zen. Ba-  
ten bat igeri ere atera zen  
autobusetik eta gidaria eta  
beste pare bat pertsona, be-  
rriz, hesiaren aurkako golpe-  
aren ondorioz aurrealdeko  
kristaletik atera ziren aidean.

Istripu honen ondorioz  
koman egun batzuk pasa  
ondoren "kobradorea" hil  
egin zen, zoritxarrez. Agian  
autobusa gurpil gainean  
geratu zelako edo, ez zen  
okerragorik gertatu. Eraman  
zuten sustoaz gain min har-  
tutakoak baziren, golpeak,  
ebakiak.. baina gauza larririk  
ez.

Nahiz eta dagoeneko 34  
urte pasa diren askok orain-  
dik gogoan du egun hura  
eta, batez ere, istripua  
beren azal-hezurretan sufritu  
zutenek.

## KALEBERRI

Iñaki Agirresarobe



### Andatza elkartearen urteko balantzea

**H**erriko mendi elkarte  
honek hilean behin anto-  
latzen dituenak herriko kirolzale-  
tasunaren esparruan urtean  
zehar dagoen hutsunea bete-  
tzen dute nire iritziz. Hainbat  
motako irteerak antolatzen  
dira: ohiko mendi irteerak, eski



irteerak, bizikleta ibilaldiak,  
Andatza Eguna, Ibilaldi neur-  
tuak....

Hauetz gain, asteburu pasak  
eginak ditu eta bat azpimarra-  
tzekotan, joan den apirilean  
Arabako Añana eskualdera  
egin zena aitatu behar dut.  
Bertan, arabar mendizaleekin  
izaniko irteera oso aberasgarria  
suertatu zen, bi eskualdeko kul-  
tur topagunea gerta zedin.  
Bestalde, diapositiba emanal-  
diek ere bere lekua izan dute  
urtez urte antolatutakoetan.  
Ekitaldi xumeak izan arren,  
beharrezkoak bezain aberas-  
garriak dira hauek herriaren  
dinamikarentzat. Ekintza erral-  
doietara ohiturik dagoen gizar-

te honek honelako ekintzak  
sariago behar ditu, ohartu  
gabe ere globalizatorantz  
abiatuak baikara, hau da, eki-  
taldi bat ona izateko erraldoia  
behar duenaren usterantz.

Eta mendizaleen urtea ondo  
amaitzeko, abenduaren 15ean  
hamarkote bat bildu zen ingu-  
ruko mendietatik goizpasa egi-  
teko, urteko ondorioak atera  
eta arratsaldean irteera guztien  
diapositiba bilduma ikusteko.

Eta 2001ak emandakoak  
erreparatuz hurrengo urtekoan  
pentsatzen jarri behar. Jakin  
ezazue, beraz, 2002 urteko  
federatu txartelak berritzeko  
epea zabalik izango dela  
abenduren 21 arte.



# AGINAGA

Maria Angeles Arruti



## Urtea ondo amaitze aldera

**A**ldapako bidean, kamioaren ezker-eskubi dauden zabaluneak galipotarekin konpondu eta txukun-txukun jarri dizkigute, baita kristalezko kontainerra jarri ere.

Gainera, zuloak non dauden adierazteko poste zuri-berde marratuak jarri dizkigute gure baserri bideetan, eta hau guztia eskertzekoa da auzotarron aldetik. Beraz, eskertua gera bedi lerro hauetatik. Eta urtea bukatzera doan hau momentu egokia izan liteke balantze txiki bat egiteko. Beti kexak jartzen aritzen omen naiz nere tarte honetan, batzuek, behinik behin, horixe esaten didate.

Bada, goazen urtea ondo-ondo bukatzera egin diren konponketa hauek aipatuz.

Urte amaierarekin batera datozkigun jaiak ere merezi dute tokirik hemen. Urtero bezala famili giro ederrean bilduko gara guztiak eta urtean zehar gure inguru hauetara gehiegi hurbiltzen ez direnak orain etorriko dira. Orduan aipatu ditudan aldaketak ikusi eta auzoa urte berriari ongietorria egiteko dotore samar jarri dutela konturatuko dira. Urtea ondo bukatzea opa dizuet denori eta datorrena osasun eta pakearekin hasi dezagula. Jai zoriontsuak igaro.



# ZUBIETA

Mikel Bengoetxea



## Elizako berritze lanen bukaera

**G**ure eliza txukuntzeko lanak hasi zirela bada denbora dezente. Azkenik bukatuak dira obrak, eta hori ospatzeko, joandako igandean, hilak 9an, benetako bedeinkazioa eman zitzaion gure eliza berrituari, Meza nagusi batekin. Bertan, Gipuzkoako gotzaina, Juan Maria Uriarte jauna, izan genuen, beste hiru apaizez lagundurik eta Juan Aldasoro ere bertan izan zen. Baita beste hainbat agintari ere, hala nola, Zubietako Herri Batzarreko ordezkariak, Donostiako Udalekoak eta Aldundikoak.

Eliza puntaraino beteta agertu zen, eta ospakizun benetan garrantzizkoa izan genuen, Usurbilgo Parrokiko koroak bere maila bikainarekin jantzi zuena.

Ondoren, hamaiketaxo bat izan genuen herritarren artean, izan ere, ez da eguneroko ospatzen halakorik.

Honako lanak egin dira: teilatua berritu, barruko eta kanpoko harria garbitu, zimiterioa lekuz aldatu, pintaketa orokorra, argiak berritu eta megafonia aldatu, besteren artean.

Guztira, 32 milioi pezetako inbertsioa egin da elizan, eta

instituzioek (Aldundiak, Udalek, Jaurlaritzak eta Gotzaindegia), 22 milioi jarri dituzte. Beraz, obra egiteko ia hiru milioi zeudenez aurrezturik, zazpi milioiko zuloa geratzen da herritarren gain. Dagoneko banatu dira etxex-etxe borondatea emateko eskararak, hori egiteko ere modu desberdinak daudela adieraziz. Espero dezagun zorra lehenbailehen kitatzea. Ez nuke ahaztu nahi lanean ixil baino tinko ibili den batzordea edo komisia, izan ere lan bikaina egin dute eta bidezkoa da beraiei ere esker ona agertzea.



## Irango bidaiaren kontaketaekin bidaia kroniken sari bat lortu du Ainhoa Azpirozek

**A**urten lehendabiziko aldiz antolatu den Euskaldunon Egunkariako *Mundumira* gehigarriko bidaia kroniken sariketan Ainhoa Azpiroz usurbildarrak bigarren postua eskuratu du *"Iran: txadorraren azpiko begiradak"* lanarekin. Udaran joan ziren Iran aldera eta kontakizun honetan hango emakumeek kontaktzen dute berarekin izan duten hartu emana. Berak hobeto azaldu dizkigu guzti honen nondik norakoak.

### Zer sariketa zen hau?

Ostiraletan Euskaldunon Egunkariak "Mundubira" gehigarria ateratzen du eta aurten lehenengo aldiz antolatu dute bidaia kroniken lehiaketa. Bidaia, mendi irteera, trabesia edo antzeko baten kontaketa egin behar zen. Honekin batera argazkiak, krokisak, mapak etab. ere aurkeztu zitezkeen. 33 lan aurkeztu ziren eta ni geratu naiz bigarren.

### Zer kontatu duzu "Iran: txadorraren azpiko begiradak" lanean?

Udaran Iranen izan ginen eta bertako bidaia kontatu dut baina hango emakumeen ikuspegitik. Han emakume desberdinak ezagutu ditut eta han ikusi dudana nik kontatu beharrean hango emakumeen ahotsean jarri dut nirekin izan duten harremana.

### Eta zerk harritu zintuen gehien?

Jendeak. Hilabete bat pasa genuen eta hangoak laguntzeko prest zeuden beti. Kalendarian gindoazela guregana etorri, nongoak ginen galdetu eta lagundu egiten zizuten, etxera gonbidatzen gintuzten afaltzerara edo lo egitera... jendeak oso ondo hartu gintuen.



### Musulmanak izanda, jantzeko era berezia dute ezta?

Emakumeek, adibidez, goitik behera tapatuta joan behar dute kalean, eta hara joaten diren atzeritar emakumeak ere bai. Nik banekien hori, horretaz kontzientziatuta joan nintzen, eta hilabete osoan eskuak eta aurpegia bakarrik ikusten zitzaizkidala ibili nintzen. Horrez gain, arropa estuak ere ezin dira erabili. Gizonezkoek, berriz, kalean ibiltzeko galtza motzak ezin dituzte jantzi. Hori bai, gero etxe barruan jantzen dituzte.

### Eta nola moldatu zinen jantzerak horrekin?

Pentsa, 40 gradurekin goitik behera jantzita eta gainera arropa ilunekin. Hala ere, banekien nora nijoan eta hango kultura edo ohitura denez errespetatu beharra zegoen. Eta azken finean hobe da horrela, beraiek ere askoz harrera hobe egiten dizute. Normalean zapia ibiltzen nuen buruan eta azkenean gorputza estaltzeko belu-netaraino iristen zen mantal bat erosi nuen. Lehenengo egunetan guri begiratu eta barre egiten ziguten, bazeki-

ten atzeritarrak ginela, eta kasu egitera etortzen zitzaizkigun.

### Nolako bizimodua aurkitu duzue han?

Joan aurretik errespetua sortzen dizun herrialde bat da, baina inguruko beste herrialdeekin alderatuta bizimodu hobe dute. Denetik dago. Batzuk aberatsagoak dira, besteak, berriz, diru gutxiago dute... hemen bezala noski, baina bizitza maila hemen baino baxuagoa da. Han lanean irabazten dutenarekin bizitzeko adina dute. Guretzat, ordea, merkea da hura. Luxurko jatetxe batean 700-900 pezeta ordainduta ondo jan daiteke han.

### Berriz itzuliko zinateke Iranera?

Orain segituan ez, baina hemendik urte batzuetara bai. Baten eta bestearen etxean lo eginez lagun asko egin ditugu eta hangoek gurekin izan duten jarrera ikusita berriz joateko gogo sortzen zaizu. Gainera, batzuekin hartuemanak ditugu oraindik. Guda hasi zenean hitz egin genuen beraiekin eta ondo zeudela esan ziguten.



Igandetan ganba-ziri mundialak!  
Pintxoetan aukera zabala  
Asteburuetan bokadiloak

**Urte berri on!**

Alperroburu, 1  
Telf: 943 36 61 21



KAFETEGIA

**GORRITI**



Kafe berezia!

Eguberri zoriontsuak opa  
dizkizuegu!!

**San Estebana, 8 Tel; 943 36 27 70**

**SETABU TAILERRAK, S.M.**  
ERREMENTARITZA-GALDARAGINTZA




- ✕ SOLDADURA
- ✕ BURDINEZKO ATEAK
- ✕ BURDIN SAREAK
- ✕ PLANOTIK EGINDAKO  
PIEZAK

**Gabon zoriontsuak igaro  
ditzazuela  
URTE BERRI ON!**

**Eskatu aurrekontua  
konpromezurik gabe**

Ugarte industrialdea, 7 Pabiloia  
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)

TELF: 943 36 08 48  
FAXA: 943 37 24 67





- ✎ Matematika
- ✎ Ingelesa
- ✎ Fisika
- ✎ Informatika
- ✎ Kimika

*Maila fuztietan*

Zorionak eta Urte berri on!

Kale Nagusia, 10 behea atzeko aldea

**Pintxoak, bokatak,  
plater konbinatuak...**

***Urte berri on!***

IRAZU KALEA, 3

TELF: 943 37 00 13

**TXIRIBOGA**



**A. BRUÑO E HIJOS S.L.  
ANGULAK ETA ITSASKIAK**



**Menu ezberdinetako  
aurrekontuak egiten ditugu**

**Egin ezazu zure eskaera  
telefonoz:**

**943 37 27 88 USURBIL**

**Legarde Kaleko Zumartegi**

**8.000 pzta.**

- Ganbak
- Langostinoak
- Karakelak
- Nekorak
- Lanpernak
- Buia
- Zentolloa
- Mixera
- Ardo txuria

## GARAGEN SALMENTA ETA ALOKAIRUA BAXU KOMERTZIALAK



KALE NAGUSIA 4,6,8

ERREKATXIKI KALEA 2,4,6,8


**GARAGEN SALMENTA ETA ALOKAIRUA,  
BAXU KOMERTZIALEN SALMENTA  
SALMENTA ZUZENA ERAGILEAGATIK.  
KALE NAGUSIAN 4,6,8 eta ERREKATXIKI KALEAN 2,4,6,8**

GARAGE ITXIAK. KOMUNITATEN ADMINISTRATUA.  
KOTXE BATENTZAT EDO BIRENTZAT. ALTURA BEREZIAK.  
BAI FURGONETAK EDO KARABANARENTZAT. TAMAÑA ETA LUZERA  
DESBERDINAK. EGUNEKO ARGIAREKIN EDO KONTAGAILU  
PROPIOAREKIN. KOTXIAK GARBITZEKO LEKUAREKIN

**SALMENTAK ZURE NEURRIN FINANTZIATUAK  
SARRERAK: 500.000 pezetarik. HILEKOAK: 15.000 pzl.**

**MENDIGAIN S.M. ERAGILE INMOBILIARIOA. Tel. 943 31 48 21  
DEITU EZAZU KONPROMISURIK GABE**

### GARAGEN DISTRIBUZIOA



Lehenengo solairua

Bigarrenengo solairua


## ANTXETA

Eguberri alaitsuak  
opa dizkizuegu!  
Urte berri on!



Eguzkitza, 4  
Telf: 943 37 03

## MIKEL ARRAINDEGIA



Urte berri on!

Alperroburu, 1  
Telf; 943 36 63 56



- Bulegoetako materiala
- Liburudendetako artikuloak



**Urte berri on!**

Ugaldea industrialdea. 19. pabiloia  
20170 USURBIL  
Telf.: 943 36 58 92 - Fax: 943 37 16 86



# URDANTZI IGELTSERITZA

*urte berri on!*



Tel: 943 363370

943 361489

649435475

649435476

## ALKORTA AUTOSERBITZUA

KALITATEKO  
**EUSKAL  
OKELA**



CARNE DE VACUNO  
DE CALIDAD  
DEL PAIS VASCO

- . FRUTAK
- . BARAZKIAK
- . Etxeko produktuak:  
txorizoa, oholkia, krocketak...
- . Kongelatuak



Beheko kalea, 4

Tel: 943 36 57 42

**URTE BERRI ON!**

**ESTATUEN ERASOEN AURREAN,  
ERANTZUN,  
EUSKAL HERRIA ERAIKIZ,  
BATASUNA ERAIKIZ**

*urte berri on!*

• ESKUBIDE GUZTIAK • EUSKAL HERRITAR ORORENTZAT •  
EUSKAL HERRI OSOAN •



**batasuna**

## Urriaren 27ko udalbatzako aktak hautsak harrotu ditu udalean

**P**asa den azaroaren 30eko plenoan urriaren 27ko udalbatzako akta onartu bazen ere, akta honen inguruan saltsa dexente sortu da udalean. Kultura eta Hizkuntza Normalkuntzarako teknikariaren hautaketako tribuna izendatzerakoan, aktan bere funtzioetatik suspendituta dagoen Joxe Antonio Altunaren izena agertzen da aldeko botoetan eta Agustín Lizaso, berriz, ez da azaltzen.

Akta aho batez onartu eta egun batzuetara EAJ-PNV alderdiko zinegotziek hori salatu zuten udalean aurkeztu zuten idatzi batean. Bertan, besteak beste, akta hori kontuan hartuta udalbatzako partaide ez den Joxe Antonio Altunak Kultura eta Hizkuntza Normalkuntzarako teknikariaren hautaketarako tribuna izendatzerakoan botoa eman zuela egiaztatu daitekeela esaten da.

Udalbatza horretan egon zirenetako batzuek esandakoaren arabera Joxe Antoniok gai horri zegokion eztabaidan parte hartu zuen, baina erabakia hartzerako orduan ez zuen inolako botorik eman. Hori bera esan zigun Begoña Garmendia udaleko idazkariak ere. Gainera, udalbatza horretako aktan puntu honetan bakarrik agertzen da Joxe Antonio Altunaren izena, beste guztietan oraindik ere alkatea den Agustín Lizasoren izena agertzen baita.

Joxe Antonio berak esandakoaren arabera akta idazterakoan egindako akats bat izan daiteke, baina urte osoan inolako arazorik izan ez eta orain guzti hau gertatzea arraroa iruditzen zaie. Guzti hau argitu eta akta hori zuzentzeko datorren abenduaren 26an izango den udalbatzan aztertuko dute gertatu dena.



## Aginagako pelotalekua

Ariztitxo pelotaleku berria egiteko lanak laister hasiko dira. Dagoeneko lur mugiketa, berdinketak eta eraisketak zer enpresak egingo dituen erabaki du udalak eta Acuña izango da Aginagako pelotaleku berriko hasierako lanak egingo dituen. Hurrengo fasea adjudikatu ahal izateko lanean hasi dira ja udalean eta laister egingo zaie enpresa desberdinei proposamenak aurkezteko deialdia.

## Giharketa gela

Pasa den abenduaren 12az geroztik zabalik dago Oiarde Kiroldegiko giharketa gela. Kirol Patronatoak squash-eko pista bat kendu eta Aerobik eta giharketa gelak haunditzea erabaki ondoren abuztuan hasi ziren bertan lanean eta azken sei asteetan aerobikeko gela erabili badute ere, giharketa gelako lanak duela gutxi amaitu dituzte. Gela haunditzeaz gain, aparailu berriak ekarri dituzte: bi bizikleta estatiko, ergometroa eta pesak egiteko aparailua. Hala ere, kiroldegia inauguratzerakoan jarri zituzten aparailu batzuk hor daude oraindik eta pixkanaka-pixkanaka aldatzeko asmoa dute. Udalak sei milioi pezeta ordaindu behar izan ditu lan hauek egin eta aparailu berriak erosteko.

Eguneko bazkariak

**ETXE ESTE  
JATETXEA**

*Ondo ibili*  
Gabon jaietan!



Aginaga

☎ 943 36 27 40



Urte berri on!

**Usurbil Autoak, S. C. L.**  
Zerbitzu ofiziala

Zumartegi Poligonoa  
Aitzezarra kalea, 1  
20170 USURBIL

Tlf: 943 36 10 79  
Faxa: 943 36 62 92

**AGIRREZABAL  
estankoa**

Zorionak eta  
urte berri on!

Kale nagusia, 27  
Telefona: 36 11 10

## “Alkatea ni ez nintzenez urte honetan aholkulari lanak egin ditut udalean”

**2**001. urtean Usurbilen bi alkate eduki ditugula esan daiteke. Udalak espainiar armadarekin ez kolaboratzeko hartu zuen erabakiaren ondorioz urtebeteko suspentsioa bete behar izan du Joxe Antonio Altunak eta Agustin Lizaso alkateordeak hartu zuen bere lekua. Suspentsio hori bukatzeaz dagoela ikusita, balorazio txiki bat egiteko Joxe Antoniorekin hitz egin dugu.

### Nola moldatu zara “lan berri” honetan?

Lan aldetik begiratuta oso ondo antolatu gara, ez dugu inolako eragozpenik izan. Nik nire ekarpenak eta nire lanak egin ditut eta Agustinek zalan-zaren bat zuenean elkarren artean eztabaidatu ditugu gauzak. Betiko martxa eraman dugu, baina nik suspentsioagatik ezin nuen ezer sinatu, ezin nuen alkate modura elkarriketarik eman.... Nik alkate modura ezin nuen inon azaldu eta erabakiak hartzerakoan ez dut eskumenik izan.

### Zer lan egin duzu zuk urte honetan?

Batzorde guztietara joaten nintzen, baina laguntzaile modura beti. Bertan, kargurik ez izanda ere nire eritzia ematen nuen eta azken hilabete honetan zerbait gertatu bada ere beste alderdietako zinegotziekin ez dut arazorik izan.



Alkatea edo zinegotzia ezin nuen izan. Horregatik kontratu politikoa eduki beharrean kontrato laboral bat egin zidaten urte hasieran. Aholkulari lanak egin dituen udaleko langile bat izan naiz urte honetan.

### Kanpoko jendearekin arazorik izan al duzu?

Urte asko daramatzat alkate modura eta enpresa gizon, zinegotzi eta bestelako jendearekin hartueman asko izan ditut urteetan zehar eta aurrean suspendituta egon arren harreman bera izaten jarraitu dut. Alkatea ni ez naizela azaldu izan dut beti eta ez dut arazorik izan. Hori bai, batzutan Agustiningana bidali izan dut jendea, bera izan baita herriko alkatea.

### Eta herritarrekin?

Herritarrak batetik edo bestetik jakin dute nire egoera ze-

in den eta alkatea ni ez nintzenela esan beharrik ere ez dut izan.

### Hala ere, bulego txikiago batean egon zara.

Bulegoz aldatzea ere bere garrantzitsua zen, funtzionamendu aldetik desberdintasun bat egon behar baitzuen. Ezin nuen alkatearen bulegoa erabili eta nire lana egiteko bulego bat jarri zidaten. Aspaldian etorri ez zirenak bulego txiki honetara sartu eta “non sartu zaituzte?” galdetu izan didate harrituta.

### Eta urtarrilaren 1ean zer gertatuko da?

Berriz ere alkate bihurtuko naiz, nire kargura itzuliko naiz. Urtea amaitzean bukatzen da suspentsioa eta urtarrilaren 1etik aurrera lehen nituen eginkizunak izango ditut. Horrez gain, nire betiko bulegora itzuliko naiz; badut gogoal!

**Osasunez urratu aurtengo Gabonak!**

# USURBILGO HORTZ KLINIKA

**FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA**

Kale Nagusia, 2 1.C4  
Tlf 37 08 78

20170  
USURBIL

## Kalkos kopisteria



- ✎ Fotokopiak
- ✎ Fotokopiak koloretan
- ✎ Plastifikazioak (DIN A2 arte)
- ✎ Fax zerbitzua (jaso eta bidaltzeko)
- ✎ Planoen kopiak (AO arte)
- ✎ Ordenadoreko lanak
- ✎ Enkuadraketak (wire-o, kiribilak,liburua)
- ✎ Zure argazkia puzzle batean

Urte berri on!

Juan de Garay kalea  
20160 Lasarte-Oria

Telf: 943 37 64 24 Fax: 943 37 61 55



# LABE GOXO

Okindegia-Gozotegia



Eguberri eta  
urte berri jai  
zoriontsauk  
opa dizkizuegu!



Kale Nagusia, 2 Telf: 943 37 33 48  
943 37 09 13

# N•I

ILEAPADA INDEGIA  
MIXTOA



**Solarium, depilazioa,  
makilajea eta manikura**

Aritzeta 2- 2, 1.A Telf: 943 36 19 51



# AIZPURUA AUTOBUSAK

Jai zoriontsuak opa dizkie  
bezero eta lagunei.

URTE BERRIA asmo berriez  
beteta etor zatzaiela!



# NOAUA!ko bazkideentzat eskaintza berria



" CD berri honetan bi berezitasun elkartzen dira. Batetik, Salbatore elizako organoan grabatzen den lehen CDa da, horrek duen garrantziarekin, betirako geratuko den herri ondasunaren isla moduan; eta, bestetik, Jesus Guridi (1886-1961) euskal musikari bikaina eta ezagunaren inoliz grabatu gabeko obrak biltzen dituelako, 74 minutu biltzen dituen 21 obra labur hain zuzen. Beraz CD honen sorrerarekin primizia baten aurrean zaude"

- ✗ Noaua!ko bazkideentzako 1.500 pzta.
- ✗ Zumarten matrikultatuta daudenentzat 1.000 pzta.
- ✗ Salmenta librea 2.500 pzta.

► Noaua!ko bazkideek Lizardin eta Lauroken eskuratu ahal izango dute eta Zumarteko ikasleek Zumarten bertan.

**LOURDES LARRANAGA**

**ESTETIKA ZENTROA**

- Depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Manikura
- Betileen permanentea eta tintea
- Azaleko garbitasuna
- Makilajea
- Masajeak
- Solariuma

**Urte berri on!**



Irazu kalea, 12- behea (Paris Etxea)

Tel: 943 362887

**AIZPURUA**



**TELESFORO ARDOAK**

*Eguberritan zure mahaia  
ondo hornitu nahi  
baduzu, gurean  
baduzu aukera!*

**URTE BERRI ON**



Tel: 943 36 12 20

Kale Nagusia, 25



**EAJ  
PNV**

**Usurbilgo Eusko Alderdi Jeltzaleak 2002. urte baketsua opa dizue  
Eguberrion!!**

## Eguberritako xextuaren zozketa

**G**abonak pasa ondoren jan eta edateko gogorik baduzue hona hemen **Noaua! Kultur Elkarfeak** bere bazkide eta aldizkarian publizitatea egiten dutenei eskaintzen dien aukera paregabera. Urtarri-laren 3an goiko hori bezalako hiru xextu zozketatuko ditugu.

Xextu horietako bat publizitatea egiten duzuenon artean banatuko dugu. Zozketa eguna baino lehen zenbaki bana bidaliko zaizue, eta zuen zenbakia tokatzen bada... ba horixe, xextua zuretzat.



Beste biak berriz, bazkideentzat izango dira. Zuen bazkide zenbakiak zortea eman dieza-zueke. Xexto bakoitzean produktu hauek daude: Saizarko sagardoa eta Belmont sagardoa, Kandido ardoa, Markel Olazolaren etxeko patxarina, Joxe Mari Arrutiren txori-zoak, Galardiko babarrunak, Joxe Mari Alduntzinen ezti, Juan Joxe Arrospideren onttoak, Aitzagako txanpaina, Andres Bruño e Hijos-en mariskoa, Agiña piperrak, Angulas Aginaga gula, Zeraingo gazta....

### Iazko irabazleak



## 2002. urteko egutegia datorren alean izango da zuen etxeetan

**2**002. urtea gainean dugu-  
la! Urtea azkar pasa da eta ia ohartu ere egin gabe datorren urteko egutegiari begira jarri beharra izango dugu guztiok.

Honezkero pentsatzen jarriak izango zarete ea aurten Noaua!k ez ote duen 2002. urteko egutegirik aterako. Azken hiru urte hauetan gabonetako alearekin batera bana-

tu izan badugu ere, aurten ez da posible izan. Hala ere, lasai egon, izan ere, 2002. urteko lehen alearekin batera izango baita zuen etxean.

Atzerapenaren arrazoia egutegi formatoaren aldaketa izan da. Beti poster formatokoa egin badugu ere, Zaloa Arnai-zek hurrengo urterako prestatu duenak badu berrikuntzarik, eta ez nolanhikoak gainera!

Hala ere, ez dugu argibide gehiago emango, datorren alean izango baituzue esku artean. Ziur jaso bezain laster zuen sukalde edo etxeko txokoren batean jarriko duzuela. Guk hala nahi genuke behintzat.

Bitartean, ondo pasa 2001. urtea amaitzeko falta diren egun hauek eta Urteberri on guztiok!

# Argazki Eraskusketa abenduaren 19tik 30era bitartean Udarregi Zaharrean

**N**oaua! Kultur Elkartearen eta Usurbilgo Udalaren arteko elkarlanari esker, herriko udal fototeka dagoeneko martxan da, errealitate bat da. Erakusketa hau hain zuzen, horren adierazgarri da. Erakusketa honen helburu nagusia horixe da, herriko udal fototeka ezagutzera ematea, herritar oro berau osatzen laguntzeko animatzea, eskuartean dugun altxorra maitatzen eta zaintzen irakastea.

Erakusketan jarri ditugun argazkiak, altxor horretako bakan batzuk baino ez dira. Ez da erraza izan ia 10.000 argazkietatik 40-45 bat aukeratzea. Ziur ez direla altxor horretako ikuskagarrienak, ezta esanguratsuenak ere, baina hautatu beharra zegoen eta, zuzen ala oker, urte bakoitzeko argazki bat jartzea erabaki dugu. Asmatu ote dugun; hori zuri dagokizu erabakitzea.

## Zer da udal fototeka?

Udal fototeka, udalak martxan jarri nahi duen beste udal zerbitzu bat da; liburuak irakurri ahal izateko udal-liburutegia dugun bezala, herriko argazkiak era sailkatu batean gorde, zaindu, ikusi eta eskuratu ahal izateko eratu nahi den zerbitzua.

teko eratu nahi den zerbitzua.

Zerbitzua hau herritar oren eskuera jarri aurretik ordea, argazkiak sailkatu, bakoitzaren fitxa osatu (argazkigilea, urtea, ageri diren pertsonak ... zehaztuz), digitalizatu eta ordenadorean behar bezala gorde behar dira. Izan ere, zerbitzu hau erabilgarria gerta dadin, ezinbestekoa baita argazkiak bilatu, kontsultatu eta ikusteko era erraz eta azkar bat presta-tzea; eta horretarako tresna egokiena ordenadorea da. Argazkiak ordenadorean gordez, urteekin hondatuz doazen argazkiak bertirako galtzea saihestuko dugu.

Fototeka osatzen den eran, herritarrek argazkiak bilatzeko, ikusteko eta eskuratzeko erabili ahal izango duten bitartekoa, oraindik hobetzen ari garen arren, dagoeneko prest dago eta norbaitek ikusi nahi balu, erakusketan bertan lanean diharduen arduradunari, *Zaloa Arnaizi*, erakusteko eska dakioke, hala nola, fototekaren inguruko edozein argibide.

Dagoeneko digitalizatu ditugun 700 argazkiak ikusi ahal izateko bestalde, momenturo argazkiak erakusten ari den ordenadore bat jarri dugu era-

kusketan. Herritar guztiok parte har dezakegu, eta parte hartu beharko genuke, udal fototeka sendotzen eta aberasten, gure kultur ondarea, gure argazkiak zaintzen eta babesten. Hori da gure gogo eta nahia. **Nola?**

Fototeka moldatzeko bidean, argazki bakoitzaren fitxa osatzeko lana nekeza da. Areago argazki zaharren kasuan, bertan azaltzen diren pertsonak zein egoerak ezagutzeko zailtasunak ditugunean. Eskertuko genuke lan horretan laguntzeko prest dauden herritarrek Zalora-ekin harremanetan jarriko balira. Ildo berean, erakusketan bertan, mahai bat jarri dugu orain arte digitalizatu ditugun argazki guztiekin; eskertuko genizueke, pazientzia eta denbora izanez gero behintzat, hauek begiratu eta ezagutzen dituzuen datuak bertan idatziko bazenituzte, guk gero fitxak osa ditzagun.

Bestalde, udal fototekaren lehen helburua udal artxiboko argazki guztiak digitalizatzea bada ere, ez da bakarra. Ahalik eta fototeka zabalena egin nahi dugu, ahalik eta argazki gehiena bertan gordez. Hala, udal fototekak herritarrek etxean dituzten argazkiak ere gorde nahi lituzke. Argazkia digitalizatu eta originala jabeari itzuliko litzaioke, argazkiari dagokion fitxan norik utzi duen jasoz. Dagoeneko hainbat herritarrek bere argazkiak utzi dizkigu digitalizatu eta ordenadorean gordetzeko.

Udal fototekak utzitako original guztiak, lagatako egoera berean itzuliko direla bermatzeaz gain, fototekan utzitako argazkiak izan ditzakeen erabilpen baimenak finkatzeko esku-bidea jabearen esku uzten du. Norbaitek argibide gehiago nahi izanez gero, fototekaren arduradunarekin hitz egin besterik ez du.



## Eguraldiak ez zuen hoztu Santo Tomas azokako giro ona

**G**oizeko 11etan farmaziko termometroak 4 gradu markatzen bazituen ere, hotzak ez zuen Santo Tomas azokako festa oztopatu. Azokako lehen orduan jende gutxi ibili bazen ere, eguerdi aldera herritar eta kanpotar ugari inguratu zen pilotalekura. Aurtengoak bazuen bai, zer ikusia. Izan ere, ohiko txistorra eta talo postuaz gain, baserriko sagardo eta babarrun lehiaketak egin baitziren. Ixabel II.ak ere herritar askoren begiradak erakarri zituen.

Azoka irekitzearekin batera, babarrun lehiaketa hasi zen. Epaimahaia Antxeta jatetxeko Patxi Arrutik, Zumeta jatetxeko Iñaki Zumetak, Tragoxkako Ramon Pozuetak eta Etxebes-teko Lurdes Agirrek osatu zuten. Tolosako Babarrun Elkarteko Arantxa Ariztimuño eta Xabier Goikoetxea izan zituzten aholkulari.

Ez zuten lan erraza izan herriko sukaldariak. 28 parte-hartzaile izan zen orotara, zein baino zein babarrun ederra goa, gainera. Aurreneko irudipena, garbitasuna, berdinta-



suna, kolorea eta tamaina baloratu ostean, **1go saria Migel Arrastoarentzat** izan zen. 2. saria Martin Irazustak eskuratu zuen eta, hirugarrena, aldiz, Markel Olaizolak.

### Gorostidi baserriak irabazi zuen sagardo lehiaketa

Eguerdian sagardo lehiaketaren eta dastaketaren ordua iritsi zen. Epaimahai lanetan herriko elkarteak aritu ziren: Ibai-Ondo elkartetik Esteban Roteta, Aitzagatik Jakoba Errekondo, Andatzpetik Pako Alkorta, Errozpetik Joxe Loidi, Peña Pagolatik Esteban Lertxundi, Aginagako Elkartetik Luis Tapia eta, azkenik, Joko Garbitik Juan Inaxio Astiazaran.

Herriko hamar baserri lehiatu ziren, eta sari nagusia **Gorostidi** baserriarentzat izan zen. 2. saria Zugasti baserriak eskuratu zuen eta hirugarrena Zumitzak.

Herritarrek ere izan

zuten iritzia emateko aukerarik. Hauen ustetan, Zugasti baserriko sagardoa izan zen onena eta berak eraman zuen herritarren saria ere. Beraz, esan daiteke elkarteetako ordezkariak fin ibili zirela hiru onenak hautatzerakoan.

Bestalde, herritarrek ere hainbat erosketak egiteko aprobetxatu zuen goiza. Postu gutxi zeuden arren, bertan egon ziren saltzaileek positibotzat jo zuten azoka. Iaz baino gehiago saldu zutela aitortu ziguten. Batez ere, barazkiak, eztiak, esnea eta gazta erosi zela aipatu ziguten.

Azokak bazuen beste protagonistarik ere: Ixabel II.a. Txerri gaixoak ez zuen erakarri zuen jendea bezain ondo pasa, izan ere, dardarka egon baitzen goiz osoan. Ezta harritzekoa ere!

Ziortzak urtero jarri ohi duen txistorra eta talo postua ere ez zen falta izan. Txistorra mokadua eta gero sagardo tragua. Antolatzaile lanetan ibili diren Noauak, Ziortzak eta Udalak oso positibotzat jo zuten goiza.

**Agurtzane Solaberrieta**



**LATAILLADE**

Iturgintza, gas  
eta berogintza  
INSTALAKUNTZAK



Ondo igaro *Eguberriak!*  
*Urte berri on!*


Ariztitxo kalea, 8 behea  
Telf: 943 36 26 35- 36 33 48  
Mugikorra: 609 888021

**FERNANDO**  
**PINTURAK**

- Enpapelaketak
- Pinturak orokorrean
- Margoak
- Paperak

Telf: 943 35 60 90- 35 35 60

*Eguberri aiaitsuak  
opa dizkizuegu!  
Urte berri on!*




**ESTRELLA**  
**ASEGURUAK**



**Xabier Larrarte**  
Enpresaritza lizentziatua

- ✘ Mota guztietako aseguruak zure zerbitzurako
- ✘ Inbertsio aholkularitza

**Eguberri eta 2002.**  
**urte berri ona opa dizuet!**

# PATRI JATETXEA



ZORIONAK eta URTE BERRI ON!

Egunero bazkariak eta afariak

Kale Nagusia, 6 Telf: 943 36 27 25

sagardotegia  
txinparta  
jattetxea



Urte guztian zehar zabalik!

- . Razioak, bazkariak, afariak, pin-txoak
- . Sagardotegiko menua
- . Plater

Urbil Merka-  
taritza  
gunea



Telf: 943 37 66 98

# JAVIER ORBEGOZO

Iturgintza-gasa-berokuntza

Kalderak



Berogailuak



Iturriak



Altzariak



urte berri on!

Bizkarra kalea, 1, I. esk. ☐ Telf: 943 372937 - 365926 ☐ Mob: 659 602789






**MITZAGA  
HERRIKO  
TABERNA**

**URTE BERRI ON!**

**EUSKAL PRESOK ETXERA!!**

**TXARO ARTZE**  
*Ilargiaindegia*

- Buru-azalen zainketa
- Ile-apainketa

**URTE BERRI ON!**

Etxebeste, 3  
Telf: 943 371685




**TXAPARTEGI HARATEGIA**

*Egokherri antzartean opa dibutzean!*  
*Urte berri on!*

Kale Nagusia, 9 - Telf: 942 364800

**Kinkilde -**



Lentzeria, gizo-  
nezkoentzat arro-  
pa, haurren jan-  
tziak, etxerako

**URTE BERRI ON!**

Zubiaurrenea, 3  
Telf: 943 361787



**mota guztietako errotuloak**

**IBILGAILUAK - ERARUSTOKIAK**  
**PANKARTAK - KARTELAK -**

**Jaiak ondo pasa !**

Kale nagusia, 2  
Fax : 36 60 21



**ESTETIKA  
ZENTROA**

- x Tatuaiak
- x Estetika
- x Betileen
- x Solariuma



permanentea Muna Lurra,2 Telf: 943 37 04 62



- Depilazioa: argizari beroa eta hotza
- Depilazio elektrikoa
- Aurpegirako tratamenduak
- Masaje

korporala  
- Makilajea  
- Manikura  
- Pedikura  
- Solariuma

**URTE BERRI ON!**

Nagusia, 44 - 20160 Lasarte-Oria



**eusko  
alkartasuna**

**Mende berri on eta  
paketsua opa dizuegu  
usurbildar guztioi!**

# idazle gaztea

**Galtzagorri Elkarteak eta Euskaldunon Egunkariak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesaz, Idazle gaztea literatur lehiaketara dei egiten dute.**

## OINARRIAK

### ✓ Norentzat

Lehiaketan parte hartzerik izango dute Gipuzkoako ikastetxeetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ari diren ikasleek.

### ✓ Sailak

Lehiaketak bi sail izango ditu: narrazio laburrak eta poesia. Ikasle bakoitzak gehienez lan bana aurkez dezake sail bakoitzean.

Narrazio laburretan gehienez 3 orrialdeko (6.000 bat letragune) lanak onartuko dira. Poemetan, gehienez 90 lerroko lanak.

### ✓ Kategoriak

Lehiaketaren sail bakoitzean bi kategoria bereiziko dira: A kategoria, DBHko lehen zikloko ikasleena; B kategoria, DBHko bigarren zikloko ikasleena.

### ✓ Lanak aurkezteko era

Lehiaketan parte hartzeko idazlanak ikastetxeak aurkeztu behar ditu, ikasleen izenean. Ikasgela bakoitzetik gehienez 5na idazlan onartuko dira sail bakoitzean.

Idazlanak aurkezteko epea 2002ko otsailaren 2an amaituko da.

Lan guztiak goitizen batez izenpetuko dira, baina bidaltzerakoan egilearen izen-deiturak, ikastetxearen izena eta ikasmaila ere azaldu behar dira. Datu horiek isilpean gordeko dira sarien erabakia aditzera eman arte.

Idazlanak posta elektronikoz bidali behar dira helbide honetara: [galtza.hgl@euskalnet.net](mailto:galtza.hgl@euskalnet.net)

### ✓ Hautapena

Jasotako lan guztien artean 10 lan hautatuko dira sail eta kategoria bakoitzean. Hautapen batzordea osatuko dute Galtzagorri Elkartearen ordezkari bik eta Euskaldunon Egunkariaren ordezkari bik.

### ✓ Bozketa

Batzordeak hautatutako lanak Euskaldunon Egunkariaren web orrian agertuko dira (<http://www.egunkaria.com/literatura>), 2002ko martxoaren 4tik aurrera.

Euskaldunon Egunkariko irakurleek botoa emanaz aukeratuko dituzte sail eta kategoria bakoitzeko hiru lan irabazleak. Pertsona bakoitzak boto bakarra emateko eskubidea izanen du, 2002ko maiatzaren 15a bitartean.

### ✓ Sariak

Idazleentzat: lehiaketako sail eta kategoria bakoitzean sari nagusi bat eta bi sari osagarri izango dira, Gipuzkoako Foru Aldundiak emanak.

Irabazleen lanak Euskaldunon Egunkarian argitaratuko dira.

Irakurleentzat: bozketan parte hartutako irakurleen artean sari bat zozketatuko du Euskaldunon Egunkariak.

Saridunak 2002ko maiatzaren 23an emango dira aditzera «Liburu Gaztea» programaren barruan Gipuzkoako Foru Aldundian egingo den saioan.



**Gipuzkoako Foru Aldundia**

Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Departamentua



**Egunkaria**

## Botanika-parke bat Lasarte eta Usurbilgo mugan

**L**asarte eta Usurbilen artean 26.500 metro karratuko botanika-parke bat egingo da datorren urtean. Lasarteko Atsobakar hezeguneaz baliatuz proiektu bat bat aurrera eraman nahi du Gipuzkoako Foru Aldundiak eta parke honetarako 100 milioi pezeta bideratzeko erabakia hartu du. Datorren urtean hasiko dira lanean eta bost hilabetetan dena prest edukitzea espero dute.

Urbil merkatal zentruaren aurreko lurretan, Atsobakarreko urbanizazio ondoan bada hezegune bat. Bertan landare-tza ugari dago, Lasarten etxeak egiten joan diren heinean bertan zeuden landareak Atsobakarren birlandatuz joan baitira. Hezegune honetan lezkak, ziriak daude putzuaren inguruan eta han ibiltzen dira uroilo eta lertxoin ugari ere.

Orain, Foru Aldundiak onartu berri duen proiektu honekin, oraingo parketik hasita eremu osoaren egoera hobetu nahi dute. Proiektua amaitzen dutenean mota guztietako zuhaitzak ikusi ahal izango dira bertan, orain daudenez gain 105 espezie desberdin landatzeko asmoa baitute. Haritzak, urkiak, hurritzak, gaztainondokak, lizarrak, makalak, sahatsak eta zuhaitz tropikalak jarri nahi dituzte hezegune honetara migrazioan dauden hegaztiak erakarri ahal izateko.

Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiak 100 milioi pezeta bideratuko ditu eta proiektuak 158 milioi pezetako aurrekontua duenez Lasarteko udalak ere diru kopuru bat jarriko du 26.500 metro karratu izango dituen botanika-parke hau gauzatzeko.



## ▶ Artzabal

Artzabalgo babes ofizialeko 48 etxebizitza, bere garaje eta trasteroekin, esleitzeko zozketan partehartzeko aurkeztutako eskaerak aztertu ostean, Kontratazio-mahaiak onartuen eta baztertuen behin behineko zerrenda prestatudu.

Zerrenda erakusketa publikoan jarri da Udaletxeko Irargarki Taulan 2001eko abenduaren 17tik 2002ko urtarrilaren 7ra (biak barne), interesatuek aztertu eta, bere kasuan, erreklamazioak edota dokumentazio osagarria aurkez ditzaten.

Ondoren, aurkeztutako erreklamazioak eta bestelako dokumentazioa aztertu ondoren, eta zozketarako onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onartuko da.

## ▶ Lapurreta

Lapurreta edo hobeto esanda lapurreta saiakera. Izan ere, pasa den abenduaren 15ean goizeko 4.30ak aldera herritar batzuk Kaleberriko Master dendaren inguruan ezezagunak zebiltzala ikusi zuten. Bertara gerturatu bezain laister kotxe batean sartu eta ihes egin zuten. Atea behartuta bazegoen ere ez zuten ezer eramaterik lortu. Ez da denda honetan lapurtzen saiatzen diren lehen aldia, azken urteetan sei edo zazpi lapurreta saiakera egin baitituzte denda honetan.

**TRUKE**  
**RUK** JANTZIAK  
 Urte berri on!  
  
 Erdiko kalea, 2  
 Tel: 37 34 81



## Urtinea

*Loreak - Lore landareak*

*Lore sortak - Koroak*

*Eguberri zoriontsuak  
 opa dizkizuegu!*

San Esteban  
 Tlf.: 943 36 22 55

## RAMON HARATEGIA

*Eguberri eta urte  
 berri jai  
 zoriontsuak opa  
 dizkizuegu!*

Eguzkitza, 6 ☎ 36 29 70

## Garai bateko "Tontoen soziedadean" sagardoa izaten zen herriko alkate

**U**urbilek ereseririk ez duela? Hortxe dago hainbeste aldiz kantatu izan dugun "Usurbildarrek daukate sagardo alkate" abestia. "Tontoen soziedadea" sortu nahi omen zuen 1948an herriko gazte talde batek. Horretarako abesti hau sortu eta zer hobea inuxente egunean mozorrotuta kalejira bat egitea baino. Soziedade berezi hura ez zen inoiz sortu, baina abestia... hor geldituko da betirako.

Garai hartan kale baserriz betea zegoen kaxkoa. Andatzpe elkarte sortu berria zen, Soroatarrek ardo bodega zuten Txamuton eta farmaziazaren aldamenean zegoen Patxi Labaienen zapateria. Zapatak konpontzen zituen, bai, baina hango hormek mila hizketaldi xeblebre entzun zituzten garai haietan. Hara joaten ziren Erramun Urkia "Ezkerra", Joxe Soroa, Joxe Mari Iraola, Teodoro Aranburu eta beste hainbat gazte Patxiarekin kontu xeblebre hitz egin eta erokeriak egitera. Zapaterira joaten ziren neska gazteei adarra jo eta nobiyoa bilatuko ziela ere esaten ziren.

Patxi Labaienek gogoan ditu oraindik hizketaldi haiek. "Erramun Urkia "Ezkerra" zena, adibidez, Michelinen gauz lana egin eta gosaltzera edo hamaiketako egitera niregana etortzen zen. Gazteak ginen, sasoia genuen eta erokeria izaten zen nagusi. hau zela, bestea zela, herriko kontuekin ibiltzen ginen gora eta behera. Halako batean "tontoen soziedadea" sortu behar genuela okurritu zitzaigun". Hori bideratzeko ideia asko ibili zituzten buruan. "Joxe Soroak, adibidez, dantzaldia egin nahi zuen orain guk



Garai hartan kale baserriak zeuden kaxkoan

*etxea (Ekaitz argazki denda) daukagun leku horretan. Diputazioari baimena eskatzekotan ere egon ginen. Azken finean ideak ziren, gure erokeria puntuak".*

Hala ere, beste bide bati heldu zioten gazte hauek. Propaganda egiteko abesti bat sortzea erabaki zuten eta zapateria izan zen operazio zentrua. "Abesti bat sortu nahi genuen. Teodoro Aranburuk akordeoia jotzen zuen eta berak zekien "bals italiano" batekin hasi ginen sormen lanean. Teodorok akordeoia jo ahala nik notak apuntatzen nituen eta zapateriko atea itxita bi edo hiru gauetan abestiaren doinuaren krokis bat egitea lortu genuen".

### Joxe Urkiak asmatu zuen abestiaren letra

Doinu hari letra jartzea izan zen hurrengo pausoa. Horretan artista omen zen Joxe Soroa. "Italian ikasten egon, fraile izan eta Madagaskarren misiolari modura egon ondoren Txokoaldeko Illarramendi txanpain lantegiko bulegoan lanean ari zen orduan. Laneko ordutan, bulegoan bertan bertso batzuk osatu zituen eta

zapaterira ekarri". Han denon artean hitzak doinura moldatu, esaldiak lekuz aldatu eta gaur egun herrian famatua den "Usurbildarrek daukate sagardoa alkate" abestia sortu zuten. Sortu bakarrik ez, herritarren artean ere zabaldu zuten. Aurrena beraien ikasi zuten eta gero zapaterira etortzen ziren beste gazteei irakatsi ziren. "Ezkongabe nahiz ezkondu ia herriko gazte gehienek ikasi zuten abesti hura".

Gazte hauen jarduna, ordea, ez zen hor amaitu, "tontoen soziedadea" sortzeko asmoarekin jarraitzen zuten abenduaren 28an, inuxente egunean, zerbait egitea erabaki baitzuten. "Asmatu genuen abestia kantatuz kalejira bat egitea erabaki genuen. Horretarako entsaio antzeko bat egin genuen lehendabizi. Pablo Sagarna eta Joxe Sagardiak jotzen zuten dultzaina, Anjel Aranburuk txistua eta Teodoro Aranburuk akordeoia. Beste guztiak abestu egiten genuen".

Joxe Urkia, Martxiel Goenaga, Joxe Miel Irastorza, Joxe Soroa, Patxi Labaien, Antonio Orbegozo, Erramun Urkia "Ezkerra", aurreko lauak... "20

gazte inguruko koadrila ginen. Ijitu jantziekin, jantzi arraroekin, begiak margotuta... etxean geneuzkan gauza arraroak hartuta atera ginen. Joxe Mari Iraola esku motza, adibidez, esku hartan igeltsuz betetako baldea hartu, bestean zakilo-tea eta guk gure abestia kantatzean guri begira zeudenei bizkarrera igeltsua botatzen zien". Joxe Urkiak dioenez astoa ere bazuten, Martxiel Goenagarena hain zuten ere. "Ni asto haren gainean ibili nintzen. Patrineko eskilarak ere astoarekin igo genituen, taberna sartu ere bai... eta ardoa eta zerbeza ederki edaten zuen hark". Azkenerako mozkortu eta hurrengo egunean hil zen asto gizarajoa.

Ilunabarrean hasi zuten kalejira, lanetik etorri eta gero. Txamuntoko azpiko lokaletik atera eta tabernaz taberna ibili ziren Patxi Labaienen esanetan. "Taberna batetik atera eta bestera joaten ginen "usurbildarrak daukate sagardoa alkate" abestia kantatuz. Zendoiania, Elenania, Estankoa, Patrinea eta Tomasenea ziren garai hartako tabernak eta denetan ardoa eta garagardoa ateratzen ziguten dohain. Hori bai, garai hartako sargentoa saiatu zen gure kalejira

*eragozten. kalejiran genbiltzala baimenik ba al genuen galdetu zigun, baina guk hori ere pentsatua genuen, alde aurretik Francisco Calparsoro "Patto"ri baimena eskatu baimenion. Horrela bada, aurrera jarraitu genuen gure abestia kantatuz".*

### Asto eta guzti kamioiean Aginagara

Kaxkoko kale baserrietako jendeak kalejira ikusi eta abesti berria entzuteko aukera izan zuen, baina Aginaga eta Txokoaldera ere iritsi ziren gazte koadrila honen oihuak. Izan ere, taberna guztietatik pasa eta Zendoianera zentozenean Aginagako Soroko Joxe Manuel Mayoz eta bere kamioia topatu baitzituzten. "Harriak garraiatzen ibiltzen zen eta berak ekarri zuen Usurbila lehenengo Dodge kamioi itxia. Bera Zendoianean zegoen eta denok kamioi atzean sartu eta han joan ginen asto eta guzti Aginagara". Han ere kalejiran ibili, Etxebeste tabernan trago batzuk hartu eta etxerako bidean Txokoalden ere sagardoa Usurbilgo alkate zela zabaldu zuten lau haizetara. "Simonenia eta Zumetanian egon ginen eta dagoe-

neko kazkarrezurreko mina haunditzen ari zenez kaxkora itzuli eta azken bueltatxoa egin genuen".

Hala bukatu zen 1948. urteko inuxente eguneko kalejira famatu hura. Gaur egungo farolik gabe, beraien zeramatzen argiekin nahikoa izan zuten orduan. "Garai hartan ez zegoen diskotekarik- dio Teodoro Aranburuk- baina guk, behintzat, ederki pasa genuen. Ez genuen ezer askorik behar, ez". Bat edo beste mozkortuta etxera eraman behar izan zuten, haiek bezala, besteek ere biharamun galanta izango zuten hurrengo egunean, baina orduan kantatzen zuten abesti hura ahotik ahora pasa eta usurbildarren ereserki bihurtu dela esan daiteke.

Hurrengo urtean ere kalejira egin omen zuten inuxente egunean, baina ez zen berdina izan. Izan ere, bigarren zatia beti izaten da txarragoa.

Usurbilgo Kale Nagusian Txamutoko zapaterian daukagu guk txoko bat maitea euskal bilera agurgarria

Han egiten dira modu onian konpondu gauza guztiak tontuak ere ibiltzen dira pozez beterik gure artian

Usurbildarrak daukate sagardo alkate, usurbildarrek daukate sagardo alkate. Irintziz pozturik beldurrak ahazturik ibiltzen gara goiz arte ai, ai, ai Irintziz pozturik beldurrak ahazturik ibiltzen gara goiz arte

Sagardotxo maitea, edari paregabea, alaitu zazu mundua, arinduaz burua.



Ez da hau kalejira hartako argazkia baina gero ere antzerkiak egin izan dituzte

## Garai taldeak lehenengo kontzertua eskaini zuen pasa den abenduaren 5ean

**K**ultur Hilabetearen barruan Garai musika taldearen kontzertua izan zen pasa den abenduaren 5ean Usurbilgo Gazte Asanbladaren lokalean. Eli Bruño, Alazne Begiristain eta Isaak Aranburuk osatzen dute taldea eta hauxe izan zen jendurrean eman zuten lehenengo kontzertua. Abuztuan elkartu ziren eta 12 abesti inguru dituzte, guztiak beraiek sortuak.

Eli Bruño eta Alazne Begiristain behin baino gehiagotan ikusi izan ditugu oholtza gainean herriko preso eta errefuxiatuen omenaldietan. Izan ere, kuadrila berekoak izanda, elkarrekin abesten hasi ziren duela urte batzuk. *"Eli Zumarte Musika Eskolan gitarra ikasten hasi zen eta nik saxofoia jotzen nuen arren gitarrarekin jolastan hasi nintzen"*. Honela abesti batzuk sortu eta bi ahotsetara moldatzen hasi ziren Alazneren esanetan. *"Honela genbiltzala Eliren osabak omenaldi batean abestuko al genuen komentatu zigun eta honela igo ginen biok oholtza gainera lehenengo aldiz"*.

Bikotea, ordea, hirukote bihurtu zen aurtengo udaran. Ziortzako kanpaldian Alazne beren abesti batzuk kantatzen ibili zen eta Isaak ere han zegoenez bateriarekin zerbaitegin zezaketela konturatu ziren. *"Ni harrিতuta gelditu nin-*



*zzen- dio Isaakek- Beraiek sortutako 12 kanta inguru zeuzkaten eta kontzerturik eman gabe zeuden oraindik"*. Horregatik, berak batera jotzen zuenez taldea osatu eta elkarrekin entsaiatzeko erabakia hartu zuten.

Abuztuan hasi ziren entsaiatzen, baina Kultur Hilabetearen barruan kontzertua eman behar zutela jakin zutenetik gehiagotan elkartu direla dio Alaznek. *"Azken hilabeteetan gehiagotan bildu izan gara Zumarte Musika Eskolan edo UGAko lokalean, batez ere Eli eta ni. Izan ere, bi ahotsetara abesten dugu eta hor arazo dexente izaten ditugu. Isaak, aldiz, batera jotzen "makina" bat da, eta ez du guri jarraitzeko arazorik izaten"*.

Alaznek, abesteaz gain, gitarra eta saxofoia jotzen ditu taldean, Elik abestu eta gitarra jotzen du eta Isaak egoten da

baterian. Beraiek sortutako 12 abesti dituzte, Eli eta Alaznek urteetan zehar elkarrekin sortutakoak gehienak. *"Musika lasaia egiten dugu, gitarra elektrikorik ere ez baitugu erabiltzen. Balada antzekoak direla esan daiteke"*. Letrari dago-kionez, berriz, presoak, maitasun kontuak, euskararen igurukoak izaten dituzte hizpide.

Taldearen izena Garai bada ere, Eliren esanetan hasieran beste izen bat jartzeko asmoa omen zuten. *"Izena lapurtu egin zigutela esan daiteke. Kanbon Gazte Topagunean ginela erakunde berriaren izena ezagutzera eman zutenean sorpresa handia hartu genuen, Haika baitzen guk taldearentzat pentsatuta geneukan izena. Ondoren liburu bat irakurtzen ari nintzela Garai izena ikusi, hura gustatu eta taldeari izen hori jarri genion."*



Giltzak  
kopiatzeko  
ditugu!

**ALDAMU**

Zapatak, Kanpinak,  
Kremailerak (poltsak,  
zamarrak, galtzak...)



Kale Nagusia, 2

Tel.: 943 37 27 95



**ZUMETA  
JATETXEA**

Txoko alde, Tel.: 36 27 13

### ZUMETA MENUAK

(Gutxienez 2 lagunentzat)

- Etxeko ahate foie-a aran pasa eta pattarraz
- Itsaski entsalada hozbero trufa zaporez
- Zapoa txangurroz beterik eta itsaski saltsaz
- Aspizuna patata pure, onddo eta piklo piperraz haragi saltsetan
- Etxeko azkenburukoan dastapena
- Ogia eta kafea

Prezioa: 3800 pta. (pertsoneko)

**B - RDATX -  
EDARITEGIA**

PINTXO BEREZIAK

Urte berri on!



Aritzeta, 2 Tel.: 943 37 10 42

## Binakako Urrezko Aizkorako proba dela eta goi mailako aizkolariak Usurbilen

**D**atorren abenduaren 30ean Besagain Kiro-lak Elkarteak antolatuta, II. Bi-bitako Urrezko Aizkorako ligaxkako norgehiagoka bat jokatu da herriko frontoian. Bertan Peñagarikano-Barberena eta Mindegia-Senosiain bikoteak izango dira aurrez aurre. Beraz, goi mailako aizkora lehia ikusteko aukera izango da arratsaldeko 17.00etatik aurrera.

Beizaman jaio eta Usurbilen bizi den aizkolaria iaz lortutako txapela defendatzen saiatuko da aurtengo honetan. Izan ere, Peñagarikano eta Nazabal-Lopez osatutako bikoteak irabazi zuten iaz lehen aldiz jokatutako bi-bitako txapelketa finalean Mindegia eta Larretxeari irabazi ostean.

Aurten, ordea, sei bikote lehiatuko dira otsailaren 17a bitartean jokatuko den txapel-



ketan. Antolatzaileek hiruna bikoterekin osatutako bi multzo egin dituzte, eta bakoitzeko bi onenak sailkatuko dira finalerdietara. A multzoa Mindegia-Senosiain, Peñagarikano-Barberena eta Larretxea-Etxeberriak osatutako izango da eta B multzoan Olasagasti-Jaunarena, Arrospide-Arria V.a eta Nazabal-Lopez arituko dira lehian. Anjel Mari Peñagarikanoren esanetan bikoien artean parekotasun handia dago. "Iaz baino pronostiko zabalagoa da, nahiko orekatuak dira biko guztiak. Hala ere, Mindegia eta Senosiain ikusten ditut indartsuen, gu ondo moldatzen gara txanda librean, baina ez hain ondo banakakotan".

Multzo bakoitzeko lehen bi sailkatuek aurrera egingo dute, eta finalerdietan gurutzatu egingo dira. A multzoko lehen sailkatuak B multzoko bigarrenaren aurka jokatuko du urtarrilaren 27an, oraindik zehaztu gabe dagoen leku batean. Beste finalerdia Idiaz-

balen jokatuko da otsailaren 2an. Honetan A multzoan bigarren geratzen den bikotea eta B multzoko lehenengoa lehiatuko dira. Finala, berriz, Azpeitian jokatuko da otsailaren 17an edo 18an.

### Buruz buru eta txanda librean elkarren kontra

Usurbilen nahiz beste saioetan egin beharreko probak iazkoak bezalakoak izango dira. Lehenengo buruz buru neurtuko dira denak dnen aurka, eta amaieran txanda librean arituko dira. Punturik gehien batzen dituztenek lortuko dute garaipena. Berrikuntza, ordea, egurretan izango da. Iaz aizkolarien esku zegoen, baina aurten antolatzaileen esku geratu da eginkizun bihurri hau.

Sariei dagokionez, milioi erdi bat gehiago bideratu dira aizkolarientzat. Ligan 40.000 pezetako saria jasoko dute aizkolariek, finalerdietan 50.000koa eta finalean 60.000koa. Puntuazioetan, berriz, 5.000 pezeta jasoko dituzte ligaxkan eta finalerdian eta 10.000 pezeta finalean.





## Irati Arzallus

□ Arkitektura  
Lizentziaturako  
ikaslea

□ 21 urte

# Er diyo?

## Unibertsitate euskalduna noizko?

**N**ork esango zidan duela lau urte, unibertsitatean hasi nintzenean, UPV-EHUn euskararen egoera larria dela eta sortu diren arazoak azalduz Noaua!-ko orri hau bete beharko nuenik.

Orduan harrigarria iruditzen zitzaidan, Euskal Herriko unibertsitatea izanda, karrera hasieratik amaierara euskaraz ikasi ezina.

Gaur egun berriz, EHUn dauden arazoak bizita eta ezagututa, lotsagarria iruditzen zait agintarien aldetik unibertsitatea euskalduntzeko dagoen borondate falta eta tamalgarriak euskalduntzeari jarzen dizkioten trabak.

Arazo hauen ideia bat egin dezazuen eta nik gertuagotik eza gutzen dudanez, gure kasua, arkitekturakoa, kontatzeko aprobe txatuko dut eman didaten aukera hau:

Aurten arte, teoriarik behintzat, 3. mailara arte egin zitekeen arkitektura euskaraz. Aurten, gure harri-durarako, 4. mailan euskaraz matrikulatzeko aukera eman ziguten, baina poz honek ez zigun asko iraun. Akats bat izan zen, Eskolako koordinazio "zoragarriaren" ondorioz sortutako akatsa.

Haseran irakasleak ekarriko zizkiguten esperantza bagenuen. Denbora pasa ahala ordea, horrelakorik ez genuela izango eta erdal taldeetan matrikulatzeko aukera eskaini ziguten. Euskaldunak garenez eta euskaraz ikasi nahi dugunez, ez geunden ados eskaintzarekin eta Euskal Adarra-

ren aldeko ikasle mugimendua jarri genuen martxan, dagoeneko askorentzat ezaguna izango den korbata horia sinbolotzat hartuta.

Matrikulatu ginenean eskaini zigutena erreklamatu, lehenengo arkitektura eskolan bertan hasi ginen (enkarteladekin, pasiluan egindako etzanaldiekin...), handik kanpus mailara zabaldu genituen gure ekintzak. Donostiako kaleetan ibilaldi bat ere egin genuen, giza korbata bat osatuz eta azkenean itxialdian egon ginen lau egunez eskolan.

Ekintza hauekin tentsioa sortu zen eskolako irakasleen, zuzendaritzaren eta departamentuaren artean eta ondorioz zenbait irakasle bere dimisioa aurkeztu zuen.

Lortutako oihartzuna ez zen nolana hinkoa izan, izan ere, errektoreordea eta lztueta (Hezkuntza Sailburua) bera ere arazo bat badagoela konturatzeko balio izan baitzuen.

Izandako dimisioen ondoan, zenbait erdal talde ere irakaslerik gabe geratu zen, baina hauen arazoa "partxe" batzuekin konpondu zuten. Euskal taldekooi berehalako soluziorik ematen ez digutenez, ikasle alternatiba bat aurkeztu genien.

Orain klase alternatibo batzuk prestatu ditugu, guri klaseak emanez laguntzeko prest dagoen borondatedun jendeari esker (karrera bukatu berriak, lanean aritzen jendea...).

Zure publizitatea  
hemen jarri nahi  
baduzu, deitu  
943 36 03 21  
telefonora!

# GALARRA GARRAIO

\* LUR ONGARRIAK  
\* ZABOR BILKETA  
\* ZISTERNA BEREZIAK

Urte berri on!

☎ 37 01 46

## ARGILAN

Etxetresna elektrikoak



*Eguberri*  
*zoriontsuak*  
*opa dizkizuegu!*

Kontzeju zaharra, 13  
Usurbil

☎ 36 13 80



## Lehiaketa



**Nor da argazki honetan itxura berria eman diogun usurbildar hau?**

Asmatzaileen artean Bordatxo tabernan bi pertsonentzat afaria zozketatuko dugu

124. aleko erantzuna



Itxura berria eman bagenion ere erraz antzeman zitekeen nor zen argazkiko usurbildarra, gaur egun Ademar Leon eskubaloi taldean jokatzen duen Xabier Mikel Errekondo hain zuzen ere.

**Irabazlea**

Iñaki Urkia Urdanpilleta

**Saria**

Tragoxkan bi pertsonentzat afaria



# Kima

MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Zorionak eta Urte berri on!

Kale nagusia, 44- behea  
LASARTE-ORIA

TEL. 943 36 61 97



Urte berri on!



BEREZITASUNAK

Txerrikumea,  
Txuleta eta Arraia

Aginaga  
☎ 36 27 73

# SEKAÑA

Argitarapen honen edizioko laguntzaille:



# kutxa

zuri esker

# TXURRUT



# TABERNA

Giro eta musika atsegina!  
Urte berri on!

San Esteban kalea, 1  
Tel: 943 36 00 80



## ABENDUAK 24 astelehena

- Parroki taldea **Jaiotzarekin kantu-kantari** irtengo da arratsaldeko 16.00etan parroki aurretik.
- Euskal Presoak Euskal Herriratzeko eskatuz olentzero errebeindikatiboa izango da askatasunak antolatuta. Aitzaga aurretik irtengo dira arratsaldeko 16.00etan.

## ABENDUAK 28 ostirala

- Euskal presoak Euskal Herriratzeko eskatuz Etxerat-en enkartelada arratsaldeko 20.00etan.

## ABENDUAK 30 igandea

- Herriko gudariei omenaldia egingo zaize frontoian. Ekitaldia arratsaldeko 19.30etan hasiko da herriko frontoian.

## OHARRAK

- ✎ Munalurran garaje bateko marra salgai . Telf. 943 362424
- ✎ Yamaha XJ 600 motoa daukat salgai. 225.000 pezeta. Telf. 943 366222.
- ✎ Usurbilen pisu bat osatzeko jende bila nabil. Deitu 943 793147 edo 617788538 telefonoetara .
- ✎ Giltza batzuk galdu ditut Eguzkitzaldea inguruan. Aurkitu dituenak 652718884 telefonora deitu dezake.
- ✎ Neoprenozko traje bat dut salgai. Rip Curl marka eta L taila. Prezio interesgarria. Telf. 653728059.
- ✎ Udarregi ikastolan eskola kiroleko monitorea behar dira. Deitu 943361216 edo 943370645 telefonoetara.
- ✎ Umea zaintzeko eta etxeko lanak egiteko neska bat behar dut. Lan ordutegia goizeko 8.00etatik 14.30etara. Telf. 943366952
- ✎ Pisukide baten bila gabiltza Lizarran pisua osatzeko. Interesatuak deitu 699 876 702 telefonora.
- ✎ Trialeko motoa salgai. Montesa Cota 335. 150.000 pezeta. Interesatuak gauean deitu 943 370767 telefonora.
- ✎ Usurbilgo taberna batean lan egiteko pertsona bat behar da. Interesatuak deitu 943 360080 telefonora (Marijo).
- ✎ Neska bat eskaintzen da arratsaldetan ordu pare batez haurrak zaintzeko. Interesatuak deitu 943 366485 telefonora.
- ✎ Garaje itxia salgai Etxealdian. Interesatuak deitu 943 373185 telefonora.
- ✎ Alokairuan dagoen pisua edo apartamendua hartuko nuke. Telf. 943 364469
- ✎ Edozein ohetarako balio duen erabili gabe dagoen trapezio bat salgai. Deitu 943 835441 telefonora (Begoña).
- ✎ Pisu bat dut salgai. Deitu 13.00etatik 15.00etara edo 20.00etatik aurrera 943 372983 telefonora (M<sup>a</sup> Angeles)
- ✎ "Dia" supermerkatuaren ondoan dagoen garaje itxi bat dut salgai galtzaragainan. Interesatuak deitu 943 372831 telefonora.
- ✎ Emakume euskaldun bat behar dugu lau orduz etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Galdetu lratze belardendan edo deitu telefono hauetara: 943 361276 / 943 36 47 25
- ✎ Emakume bat behar da jatetxe batean egun erdiz garbitasun lanak egiteko. Interesatuak deitu 943 362713 telefonora.
- ✎ Pertsona bat hartuko nuke arropak garbitzeko apopilo bezala. Gela individuala. Interesatuak deitu 943 365737 telefonora.

Abenduaren 2an, igande goiza, jertsea galdu nuen (urdira marra zuriekin). Norbaitek aurkitu badu deitu mesedez 943 371975 telefonora. Gauz deitu.

## Urtezahar gaupasa

**Aurten ere iaz bezala, Dj. festa izango da urtezahar gauean. Goizeko 2.00etatik aurrera herriko hainbat Dj.-k jarriko dute musika herriko frontoian**

## KABALGATA



**Urtarrilaren 5ean Ziortza Gazte Elkarteak antolatuta Erregeen kabalgata izango da. Urdaigatik 17.00etan irtengo dira eta frontoira 19.00ak inguruan iritsiko dira. Goizeko 11.30etan karteroa etorriko da herrira.**

**Herriko haur eskolari izena ezin jarrita dabilta oraindik. Proposamenen bat egin nahi baduzue deitu 943 37 40 61 telefonora edo bidali bertako buzoira.**

SERIGRAFIA  
TANPOGRAFIA

# LOSU

Ugaldea poligonoa 36 - 2<sup>a</sup> Esk  
Usurbil - Gipuzkoa

37 19 54

INDUSTRI ETa  
IRAGARKI SERIGRAFIA  
KAMISETEN INPRIMAKETA

## JUANTXO Burdindegia



Urte berri on  
Kale nagusia, 10  
Usurbil 37 00 08

## Urte berri on! Haur jantziak



Kale Nagusia, 2 Tel. 943 36 59 43

ARRAINDEGIA

# PELLO

Puntapax Kalea, 7  
Tlf 36 21 64  
USURBIL

*Herriko udal fototeka osatze bidean*



*zuk ere lagundu dezakezu!*

*Udalak osasuna eta askatasuna  
opa die herritar guztiei,  
bereziki gogoz kontra etxean  
ez daudenei.*

*Urte berri on!*



**USURBIL**



МАНУКА

# МАНУКА



Promozioa  
**%15**

- Berokiak
- Jertseak
- Galtzak



Gizonezkoen arropa

- Jertseak
- Alkandorak
- Galtzak

Etxebeste kalea, 3 Telf: 943 36 11 06

**URTE BERRI ON!**